# Idiazabalgo Udala

**OHIKO UDALBATZARRA**

**2020ko irailaren 24an**

**LEKUA**: Udaletxeko Batzar Areto Nagusia

**LEHENDAKARIA**: Iñaki Alberdi Iparragirre

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**:

Aloña Barandiaran Munduate

Iñaki Arriaran Munduate

Eunate Elio Cemborain

Aritz Ugarte Munduate.

Ioritz Imaz Baztarrika

Andoni Gomez Aldanondo

Igor Ariztimuño Iparragirre

Iker Zabaleta Urcelai

**EZ BERTARATUTAKO ZINEGOTZIA:**

Ioana Prados Alustiza

**IDAZKARIA**: Leire Ucin Soraluce

**DEIALDIA:** Lehenengoa.

**ORDUA**: Hasiera: 18:00etan

**GAI ZERRENDA**

**1.Aurreko akta onartzea, hala badagokio.**

Ioritz Imaz-ek, Izal Bai-ko zinegotziak galdetzen du ea Guardi Gaineko zesioaren harira, idazkariak jartzen duela ez duela izan denboraik proiektua lantzeko eta kontsulta egin behar dela ogasunean ea bez-a ordaindu bear den edo ez. Ioritzek dio Guardi Gainekoekin egin zuten bilera batean esan zela ez zela ordaindu behar. Alkateak erantzuten dio bilera bat egitekotan dela Isabel lenoko idazkariarekin eta Guardi Gaineko Bakarnekin, kontu horiek guztiak argitzeko.

**Bozkatzen da eta AHO BATEZ onartzen da aurreko akta.**

**2.Dekretuen berri ematea.**



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 • udala@idiazabal.eus

Inork ez du ezer komentatzeko Dekretuei buruz.

**3.2020-KALD-000005 kreditu aldaketa onartzea, hala badagokio.**
Alkateak komentatzen du kreditu aldaketa hau uztaileko ogasun batzordean onartu zela. Honako hau da:

- Eskolak obrak.
- Ibilgailuaren rentinga

Hau da proposatzen den kreditu aldaketa:

**KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA**

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

| **Gastuen partida** | Azalpena | **Kredituak** | | |
|---|---|---|---|---|
| | | **Egungoak** | **Aldaketak** | **Behin betikoak** |
| 1 100.00.912.00 2020 | Soldata. Alkatea | 23.062,50 | 7.490,00 | 30.552,50 |
| 1 601.01.151.02 2020 | Irisgarritasuna lanak | 3.500,00 | 4.000,00 | 7.500,00 |
| 1 930.00.011.00 2020 | Mailegua | 60.000,00 | 10.680,50 | 70.680,50 |
| 1 226.99.311.00 2020 | C19. Babesteko hornigaiak | 12.000,00 | 15.000,00 | 27.000,00 |
| | | | | |
| **GUZTIRA** | | 98.562,50 | 37.170,50 | 135.733,00 |

| **Kod.** | **Partida** | **Azalpena** | **Zenbatekoa** |
|---|---|---|---|
| a | 2 870.01.000 2020 | Diruzaintza gerakina | 37.170,50 |
| | | | |
| **FINANTZAKETA GUZTIRA** | | | **37.170,50** |

**Bozkatzen da eta AHO BATEZ onartzen da:**



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 • udala@idiazabal.eus

**LEHENA.** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta hamabost eguneko epean jendaurrean jartzea, interesdunek alegazioak egin ditzaten.
**BIGARRENA.** Alegaziorik egon ezean, behin betiko onartutzat joko da.

**5. 2020ko plantilla organikoa aldatzea onartzea, hala badagokio.**

Alkateak azaltzen du, uztaileko ogasun batzordean onartu zela elektrizista postua sortzea.
Ioritz Imaz-ek Izal Bai-koak esaten du bere ustez lehenago enplegu plan bate gin beharko litzatekeela, erabaki horiek hartu aurretik.
Hauxe da proposatzen dena eta dagokion txostena:

**Bozkatzen dute eta hauxe da emaitza:**

- **ALDEKOAK: Iñaki Alberdi Iparragirre, Iñaki Arriaran Murgiondo, Eunate Elio Cemborain, Aritz Ugarte Munduate, Igor Ariztimuño Iparragire.**
- **ABSTENTZIOA: Ioritz Imaz Baztarrika, Andoni Gomez Aldanondo, Iker Zabaleta Urcelai, Aitzol Mendizabal Malkorra**
  **KONTRA. 0**
  **Beraz, honako hau ONARTZEN da:**

  **LEHENA.** Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta 15 eguneko epean jendaurrean jartzea, interesdunek alegazioak egin ditzaten.
  **BIGARRENA.** Alegaziorik egon ezean, behin betiko onartutzat emango da.
  **HIRUGARRENA.** Alkateak elektrizista postuaren hautaketa prozesuko deialdiaren oinarriak onartuko ditu Dekretu bidez.

**6. Alkatearen arduraldia eta ordainsari aldaketa onartzea, hala badagokio.**
Alkateak azaltzen du %50eko arduraldiarekin denboraik ez duenez udaleko gaietaz arduratzeko, %100eko dedikazioa proposatzen du, eta soldata 45.000 euro.
**Alkatearen arduraldia eta ordainsaria: aldaketa onartzea**

Aurrekariak
1. 2019ko uztailaren 11ko Ezohiko Udalbatzarrean alkatearen arduraldia eta ordainsaria onartu ziren, zehaztasun hauekin:
Izena: Iñaki Alberdi Iparragirre
Eginkizuna/Kargua: Alkatea
Aduraldia: Arduraldi partziala (%50ean) eta urteko 22.500 soldata gordina, 2019ko uztailaren 5ean aurkeztutako proposamenaren arabera. Arduraldi honek 2019ko ekainaren 17tik aurrerako eragina izango du eta ordainsarien ordainketa 2019ko uztailaren 1etik aurrerako eragina izango du.

2. Ioritz Imaz Baztarrika zinegotziak azaldu zuen Idiazabalgo Udaleko alkateak dituen ardurak, erantzukizunak eta arazoak zein udal langileek dituzten ordainsasrien bataz besteko maila zein udalerriko eta eskualdeko ordainsarien mailak kontuan hartuta, egokiagotzat ikusten duela aurreko agintaldian egin zuten proposamena.



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 • udala@idiazabal.eus

Alkateak adierazi zuen oraingoan egoki iritzi diola aurkeztutako proposamen berriari, alkatearen soldata jaisten duenari, eta etorkizunean, beharrezkoa ikusten badute, kontuan hatuko dutela iradokizuna.

Urtebete pasa ondoren, orain, alkateak lanaldia, dedikazioa eta ordainsaria %100 izatea proposatzen du, Udaleko eginkizunek eta ardurek horrela exijitzen dutela baieztatu du-eta.

**Zuzenbideko oinarriak**

**Eskumena.**
2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 32.3 artikuluan honako hau xedatzen du: «Alkateak proposatuta, osoko bilkurak zehaztuko ditu arduraldi esklusiboa edo partziala izango duten karguak edo korporazioko kideak, eta dagozkien ordainsariak»
Araubidea

—Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75. artikulua.
—2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa
—7/2018 Foru Araua, abenduaren 21ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2019. Urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena
—19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa

**Gaiaren azterketa**

I. 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 32.3 artikuluan honako hau xedatzen du: «2.– Mila biztanletik gorako udalerrietan, alkateek, beren-beregi uko egiten ez badiote, arduraldi esklusiborako eskubidea dute. Ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute eta alta emango zaie Gizarte Segurantzan».

II. 7/2018 Foru Araua, abenduaren 21ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2019. Urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena
Horren V. Xedapen Iragankorrak honako hau xedatzen du:
«Bosgarrena. Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki korporazioetako kideen ordainsarien gehieneko mugak zehaztea.
1. Asistentziengatik eta ordainsari kontzeptu guztiengatik toki korporazioetako kideek jaso dezaketen zenbatekoaren gehieneko mugak ondorengo taularen araberakoak izango dira, kanpoan utzita, hala balegokio, zerbitzu berezien egoeran dauden karrerako funtzio narioek jaso di tza keten hirurtekoak, eta kontuan izanda, besteak beste, toki entitatearen izaera eta biztanleria:

| Biztanlea | Erreferentzia |
|---|---|
| 2.001etik 5.000ra | Eusko Jaurlaritzako zuzendaria – %15 |

2. Lurralde historikoko hiriburuari aplikatu beharreko gehieneko muga 90.000,00 euro izango da; betiere Eusko Jaurlaritzako sailburuari dagokion ordainsaria eguneratzen den moduan eguneratuta.



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 • udala@idiazabal.eus

3. Dedikazio partzialei aplikatu beharreko gehieneko mugak honela kalkulatuko dira: 1. atalean aurreikusitako taularen arabera dagozkienei toki entitateak erabakitako dedikazio ehunekoa aplikatuta.
4. Mugak ezartzeko erreferentzia gisa erabilitako Eusko Jaurlaritzako karguen ordainsariak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legean ezarritakoak izango dira»

Ondorioa: Alkatearen proposamenak betetzen du 7/2018 Foru Araua, abenduaren 21ekoa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2020. Urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena

**PROPOSAMENA**

Lehenengoa- Gobernu taldeko kideen ordainsariak eta arduraldi-erregimena ezartzea:

Izena: Iñaki Alberdi Iparragirre
Eginkizuna/Kargua: Alkatea
Aduraldia: Arduraldi osoa (%100) eta urteko 45.000 soldata gordina, 2020ko irailaren 14ean aurkeztutako proposamenaren arabera. Arduraldi honek 2020ko irailaren 1etik aurrerako eragina izango du eta ordainsarien ordainketan ere 2020ko irailaren 1etik aurrerako eragina izango du.

Bigarrena. Ordainketa egitea honako aurrekontu-izendapen honen lepotik: 1 100.00.912.00 2019

Hirugarrena. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrean horren berri ematea.

Laugarrena. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gardentasun atarian argitaratzea.

**Bozkatzen dute eta hau da emaitza:**

- **ALDEKOAK: Iñaki Alberdi Iparragirre, Iñaki Arriaran Murgiondo, Eunate Elio Cemborain, Aritz Ugarte Munduate, Igor Ariztimuño Iparragire.**
- **ABSTENTZIOA: Ioritz Imaz Baztarrika, Andoni Gomez Aldanondo, Iker Zabaleta Urcelai, Aitzol Mendizabal Malkorra**
  **KONTRA. 0**

Ioritz Imaz-ek Izal Bai-ko zinegotziak horrela justifikatzen du abstentzioa:
Beraien ustez, Idiazabalgo Alkatearen soldata denen artean (bi alderdi) adostutako izan beharko litzateke, ez Gobernuan jartzen denaren araberakoa. Hori horrela eginda, gero beste partidua jarriz gero Gobernuan eta soldata igoko balute, lixkar politikorako eta zeresanetako tresna bat dela iruditzen zaio. Gainera, esaten du Idiazabalen jende asko dagoela bere lan arruntean soldata hori baino gehiago irabazten dutenak, eta baita ere, Idiazabal baino herri txikiagokoak eta aurrekontu txikiago dutenak, non bere Alkateak soldata hori baino altuago dituztenak.

Alkateak zera erantzuten dio: soldatana ezin dela globalizatu, zeren eta jende asko egongo dela hori baino gutxiago kobratzen, baita hainbat herritako Alkateek ere bai. Berari soldata duina iruditzen zaiola eta Idiazabalgo Alkate batentzako nahikoa. Horrelaxe erabaki dutela eta zentzuzkoa iruditzen zaiola.



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 • udala@idiazabal.eus

**7.Musika Eskolako zerbitzuaren behin-behineko esleipena onartzea, hala badagokio.**
Idazkariak hartzen du hitza: dio Konkursora atera dela musika eskolako zerbitzua eta Ordiziako Musika Eskola bakarrik aurkeztu dela.
Kontratazio Organoa Plenoa denez, berak du eskumena behin-behineko esleipena onartzeko eta pleguetan ezaritako dokumentazioa eskatzeko, behin betiko bermea barne.
**Bozkatzen dute eta AHO BATEZ ONARTZEN da Ordiziako Musika Eskolari behin-behineko esleitzea musika eskolaren zerbitzua:**

**LEHENA.** 10 eguneko epean aurkez dezan dokumentazioa eskatuko zaio, eta ezinbestekoa izango da %5eko bermea jartzea.
**BIGARRENA.** Aurkeztutako guztia ondo dagoela egiaztatuko da eta Plenoak onartuko du behin betiko onarpena.

**8. Udalaren eta LauLagun Bearings S.L.ren lankidetza enpresarialerako hitzarmena onartzea, hala badagokio.**
**Hau da hitzarmena:**

| **IDIAZABALGO UDALAREN ETA LAULAGUN BEARINGS SL-REN LANKIDETZA ENPRESARIALEKO HITZARMENA INTERES OROKORREKO JARDUERETAN** | **CONVENIO DE COLABORACIÓN EMPRESARIAL EN ACTIVIDADES DE INTERÉS GENERAL DEL AYUNTAMIENTO DE IDIAZABAL Y LAULAGUN BEARINGS S.L** |
|---|---|
| Idiazabalen, bi mila eta hogeiko ekainaren hogeita hiruan<br><br>**ELKARTU DIRA**<br><br>Alde batetik, IÑAKI ALBERDI IPARRAGIRRE jauna, Alkate-Udalburua Idiazabalgo Udalean, egoitza Plaza Nagusia 3an eta IFK P2004800-E duena.<br><br>Beste aldetik, JORGE DAMIAN CRUZ jauna, LAULAGUN BEARINGS SL-ren izenean eta ordezkaritzan, egoitza soziala Harizti industrialdea 201-E (20.212 Olaberria) eta IFK A20055380 duena.<br><br>Bi aldeek, bakoitzak parte hartzen duen izaerari dagokionez, interes orokorreko jardueretan lankidetza enpresarialeko hitzarmen hau sinatzeko behar duten gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri, eta hori lortzeko:<br><br>**ADIERAZTEN DUTE**<br><br>I. Idiazabalgo Udala irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren | En Idiazabal, a veintitrés de junio de dos mil veinte<br><br>**REUNIDOS**<br><br>Por una parte, D. IÑAKI ALBERDI IPARRAGIRRE, alcalde-presidente del Ayuntamiento de Idiazabal, con domicilio en Plaza Nagusia 3, con CIF P2004800-E.<br><br>De otra, D. JORGE DAMIAN CRUZ, en nombre y representación de LAULAGUN BEARINGS S.L, con domicilio social en Harizti industrialdea 201-E (20.212 Olaberria), con CIF A20055380<br><br>Ambas partes, en el carácter con que intervienen, se reconocen recíprocamente plena capacidad jurídica para suscribir el presente convenio de colaboración empresarial en actividades de interés general, a cuyo efecto:<br><br>**EXPONEN**<br><br>I.Que el Ayuntamiento de Idiazabal es una entidad local incluida entre las reguladas en el artículo 18 de |



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 • udala@idiazabal.eus

aldeko zerga pizgarriei buruzko, apirilaren 7ko, 3/2004 Foru Arauaren 18. artikuluak arautukoen artean dagoen tokiko entitate bat dela.

II. LAULAGUN BEARINGS SL-k lankide gisa esku hartu nahi duela Idiazabalgo Udalak dituen helburuak gauzatzen, honako lankidetza hitzarmen honen arabera.

Aipatutako helburuetarako, bi aldeek adostu dute lankidetza enpresarialeko hitzarmen bat egitea, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko,. apirilaren 7ko, 3/2004 Foru Arauaren 26. artikuluan aurreikusitako interes orokorreko jardueretan.

Bi aldeek hitzarmen hau formalizatzen dute klausula hauekin lotuz

**KLAUSULAK**

Lehena. Hitzarmenaren xedea.

Interes orokorreko jardueretako lankidetza enpresarialeko hitzarmen honek xedetzat ditu diru-laguntzak, programak eta kirol jarduerak finantzatzea.

Bere aldetik, Idiazabalgo Udalak hitzematen du beren jardueretan Lankidearen partaidetza ezagutzera emateaz arduratuko dela bosgarren klausulan adierazita geratzen den baldintzetan.

Bere aldetik, Idiazabalgo Udalak hitzematen du beren jardueretan Lankidearen partaidetza ezagutzera emateaz arduratuko dela bosgarren klausulan adierazita geratzen den baldintzetan.

Lankidetza hitzarmen bat formalizatzearekin lortu nahi den emaitza da interes orokorreko helburuak gauzatzea, Lankideak bere lankidetzaren ondorioz lortu lezakeen emaitza gorabehera.

Bigarrena. Izaera.

Bi aldeek aitortzen dute interes orokorreko

la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

II.Que LAULAGUN BEARINGS S.L desea contribuír, en calidad de colaborador, en la realización de los fines del Ayuntamiento de Idiazabal de acuerdo con el siguiente convenio de colaboración.

A los fines aludidos, las dos partes han acordado celebrar un convenio de colaboración empresarial en actividades de interés general de los previstos en el artículo 26 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo.

Las partes formalizan el presente convenio sujetándolo a las siguientes

**CLÁUSULAS**

Primera. Objeto del convenio.

El presente convenio de colaboración empresarial en actividades de interés general tiene por objeto la financiación de becas, programas y actividades deportivas.

A fin de alcanzar dicho objeto, el Colaborador asume el compromiso de efectuar las aportaciones económicas que se indican en la cláusula cuarta.

Por su parte, el Ayuntamiento de Idiazabal se compromete a difundir la participación del Colaborador en sus actividades en los términos que quedan indicados en la cláusula quinta.

El resultado que se pretende con la formalización de un convenio de colaboración, es la realización de fines de interés general, independientemente del resultado que pudiera obtener el colaborador como consecuencia de su colaboración

Segunda. Naturaleza.

Ambas partes declaran que el presente convenio



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 • udala@idiazabal.eus

jardueretako lankidetza enpresarialeko hitzarmen honek irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko, apirilaren 7ko, 3/2004 Foru Arauaren 26. artikuluak aurreikusitakoen izaera duela eta, inolako kasutan, ez dela gogoan hartu behar bere xede direnik publizitate babesa emateko kontratuen helburuak, azaroaren 11ko, Publizitateari buruzko 34/1988 Lege Orokorraren 24. artikuluak jasotakoak.

de colaboración empresarial en actividades de interés general tiene la naturaleza de los previstos en el artículo 26 de la Norma Foral 3/2004, de 7 de abril, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos y de los incentivos fiscales al mecenazgo y que, en ningún caso, debe considerarse que persigue los fines de los contratos de patrocinio publicitario recogidos en el artículo 24 de la Ley 34/1988, de 11 de noviembre, General de Publicidad.

Ondorio guztietarako, udal jardueretan Lankidearen partaidetzaren zabalkundea ez da zerbitzuak emate bat izango.

A todos los efectos, la difusión de la participación del Colaborador en la actividad municipal no constituirá una prestación de servicios.

Hirugarrena. Iraupena.

Tercera. Duración.

Hitzarmen honek urtebeteko iraupena izango du, izenpetzen den egunetik hasita.

El presente convenio tendrá una duración de 1 año desde la fecha de su firma.

Laugarrena. Ekarpen ekonomikoa.

Cuarta. Aportación económica.

Lankideak, aurreko klausuletan adierazitako helburuekin bat eta hitzarmen hau izenpetzeko jarri diren baldintzak mantentzen direlarik, Idiazabalgo Udalari HAMAR MILA BOST EHUN (10.500) EUROKO ekarpen ekonomiko bat egingo dio eskudirutan[1], banketxeko transferentzia bidez, horretarako Idiazabalgo Udalak adieraziko dion kontuan, edo aldeek ados dezaketen beste edozein bitartekoz.

El Colaborador, con las finalidades expresadas en las cláusulas anteriores y manteniéndose las condiciones bajo las que suscribe el presente convenio, entregará al Ayuntamiento de Idiazabal una aportación económica en metálico[1] en la cantidad de DIEZ MIL QUINIENTOS (10.500) EUROS mediante transferencia bancaria a la cuenta que a tal efecto indique el Ayuntamiento de Idiazabal, o por cualquier otro medio que pudieran acordar las partes.

Lankideak bigarren ekarpen ekonomikoa, BOST EHUN (500) EUROKOA, egingo du, material promozionala hornitzeko, lankidearen komenientziara.

El Colaborador realizará una segunda aportación económica en la cantidad de QUINIENTOS (500) EUROS destinada al uso de material promocional a conveniencia del Colaborador.

Ordainketa bi zatitan egingo da: lehenengo ordainketa ( % 50) sinatu eta 30 egunetan egingo da, eta bigarrena ( % 50) sinatu eta zazpigarren hilabetean.

El pago se realizará fraccionado en dos pagos; el primer pago (50%) se realizará en los 30 días tras la firma, y el segundo pago (el otro 50%) se realizará el séptimo mes tras la firma.

Kolaboratzaileak argazki-saio bat eta urteko elkarrizketa bat eskatuko ditu, bere web-orri korporatiboan eta Linkedin-eko kontu korporatiboan bakarrik zabaltzeko. Bertan, promozio-materiala LAULAGUN Bearings S.L.ren

El Colaborador solicitará una sesión fotográfica y una entrevista anual para su difusión única y exclusiva en su página web corporativa y cuenta corporativa en LinkedIn, donde se utilizará material promocional únicamente con el logo de LAULAGUN



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 • udala@idiazabal.eus

logoarekin soilik erabiliko da.

BEARINGS S.L

Lankideak ordaintzen duen kopuru bakoitzeko, Idiazabalgo Udalak Lankidearen enpresa sozialean aurkeztuko du egindako ekarpenaren ziurtagiria.

Por cada cantidad abonada por el Colaborador, el Ayuntamiento de Idiazabal presentará en el domicilio social del Colaborador certificación acreditativa de la aportación realizada.

Bosgarrena. Lankidearen parte hartzearen zabalkundea

Lankidetza hitzarmen honek irauten duen bitartean, Lankideak udal jardueretan duen parte hartzearen zabalkundea era hauetako batean egingo da:

· Idiazabalgo Udala konprometitzen da Lankidearen lankidetzaren aipamena egina izan dadin, jarduerari buruzko zabalkundeko ekintza guztietan.

· Lankideak jakitera eman dezake bere parte hartzea Udalaren jardueretan, Idiazabalgo Udalaren Entitate Laguntzaile deiturapean.

· Idiazabalgo Udalak edozein unetan eman beharko dio Lankideari informazioa, kirol egitarauei eta garapenari buruzkoa.

Quinta. Difusión de la participación del Colaborador

En tanto dure el presente convenio de colaboración, la difusión de la participación del Colaborador en las actividades municipales se llevará a cabo de las siguientes maneras:

· El Ayuntamiento de Idiazabal se compromete a que sea mencionada la colaboración del Colaborador en todos los actos de difusión referidos a la actividad.

· El Colaborador podrá hacer pública su participación en las actividades del Ayuntamiento, bajo la denominación de Entidad Colaboradora del Ayuntamiento de Idiazabal

· El Ayuntamiento de Idiazabal deberá aportar al Colaborador en cualquier momento información referente al desarrollo de los programas y actividades deportivas

Nolanahi ere, Idiazabalgo Udalaren jardueretan Lankideak izango duen parte hartzearen zabalkundea bere logotipo eta zeinu berezietan erabiltzera mugatuko da, hitzarmen honetatik espresuki kanpo geratuko direlarik publizitatea edo Lankideak eskain dezakeen edozein produktu edo zerbitzuren zabalkundea.

En todo caso, la difusión de la participación del Colaborador en las actividades del Ayuntamiento de Idiazabal se limitará al uso de sus logotipos o signos distintivos, quedando expresamente excluida de este convenio la publicidad, o la difusión de cualquier producto o servicio que pueda prestar el Colaborador.

Seigarrena. Jabetza intelektuala.

Hitzarmen honetako klausulek ez dute inola ere adierazten Lankidearen edonolako jabetza intelektualaren edo industrialaren titularitate eskubidea eman edo transmititzen duenik.

Sexta. Propiedad intelectual.

En ningún caso las cláusulas del presente convenio suponen la cesión o transmisión de cualesquiera derechos de propiedad intelectual o industrial titularidad del Colaborador.

Baimenik gabeko erabilerak edo Idiazabalgo Udalaren aldetik hitzarmen honetan hitzartuaz

El uso no autorizado, o para un fin distinto al pactado en el presente convenio por parte del



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 • udala@idiazabal.eus

| | |
|---|---|
| bestelako helburua duen beste edozein zeinu bereizgarriren, Lankidearen jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubideek babesturikoen erabilerak, ahalmena emango dio honi hitzarmen hau suntsiarazteko, eta halakoetan Fundazioa konprometitzen da Lankideari egindako ekarpenen zenbatekoa itzultzera, eta, hori guztia, dagokion kalte-galeren ordainaren galerarik gabe hartzeko balego. | ayuntamiento de Idiazabal de cualquier signo distintivo protegido por los derechos de propiedad intelectual o industrial o intelectual del Colaborador, facultará a éste para instar la resolución del presente convenio, en cuyo caso, la Fundación se compromete a restituir al Colaborador el importe de las aportaciones realizadas y, todo ello, sin perjuicio de la correspondiente indemnización de daños y perjuicios a que hubiere lugar. |
| Zazpigarrena. Ebazpena. | Séptima. Resolución. |
| Baldin eta hitzarmenaren helburua gauzatzerik ez balego konpromisoak ez betetzeagatik Idiazabalgo Udalaren aldetik edo honek jarduerak egiteko aukeratutako pertsonen nahiz entitateen aldetik, Lankidea libre geratuko da ez betetze hori gertatzen denetik aurrera edozein kopuru itzultzeko erantzukizunetik, kasua bada, Idiazabalgo Udala behartua geratuko litzakeelarik Lankideari jasotako kopuruak ordaintzera, Kode Zibilaren 647. artikuluan ezarritakoari jarraituz, diruaren legezko interesak gehituta. | En el supuesto de que el objeto del convenio no pudiese llevarse a cabo por incumplimiento de los compromisos del Ayuntamiento de Idiazabal o de las personas o entidades que ésta hubiere designado para la realización de las actividades, el Colaborador quedará relevado del compromiso de abonar cualquier cantidad a partir del momento de dicho incumplimiento, si es el caso, quedando obligada el Ayuntamiento de Idiazabal a restituir al colaborador las cantidades percibidas, conforme a lo dispuesto en el artículo 647 del Código Civil, y que serán incrementadas en el interés legal del dinero. |
| Hitzarmenaren helburua betetzeko ezintasuna Idiazabalgo Udalaren borondatez kanpoko beste edozein kausagatik gertatuko balitz, aurreikuspen bera aplikatuko da ordaindu gabe dauden zenbatekoak ordaintzeko, nahiz eta, jada jasotakoei dagokienean, ez diren leheneratu behar | Si la imposibilidad de cumplir el objeto del convenio se debiese a cualquier otra causa ajena a la voluntad del ayuntamiento de Idiazabal, se aplicará idéntica previsión en lo referido a las cantidades pendientes de abono, si bien, por lo que se refiere a las ya percibidas, no deberán ser restituidas. |
| Zortzigarrena. Zergak. | Octava. Tributos. |
| Hitzarmen honen edukien betearazpenean, alde bakoitzak bere egin hartu beharko ditu sor daitezkeen zergak eta Legearen arabera berari dagozkionak. | En la ejecución del contenido del presente convenio, cada parte soportará los tributos que se puedan devengar y sean de su cargo según la Ley. |
| Bederatzigarrena. Jurisdikzioa | Novena. Jurisdicción |
| Hitzarmen honek izaera pribatua du eta ondare legediaren menpekoa da. Lankideak Idiazabalgo Udalaren jurisdikzio eskumenari men egiten dio, | El presente convenio tiene naturaleza privada y se somete a la legislación patrimonial. El Colaborador se somete al fuero jurisdiccional del Ayuntamiento |



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 • udala@idiazabal.eus

| | |
|---|---|
| honako hitzarmen hau interpretatzea edo gauzatzea dela-eta sor daitekeen edozein desadostasun konpontzeko.<br><br>Eta aurreko guztiarekin ados daudela adierazteko, bi aldeek kontratu hau bi aletan sinatzen dute, goian adierazitako lekuan eta egunean. | de Idiazabal para la resolución de cualesquiera divergencias que pudieran surgir con motivo de la interpretación o ejecución del presente convenio.<br><br>Y en prueba de conformidad con lo que antecede las partes firman por duplicado ejemplar en lugar y fecha arriba indicados. |
| IDIAZABALGO UDALA/AYUNTAMIENTO DE IDIAZABAL<br><br>Iñaki Alberdi Iparragirre | LANKIDEA/EL COLABORADOR LAULAGUN BEARINGS S.L<br><br>Jorge Damian Cruz |

**Bozkatzen dute eta AHO BATEZ ONARTZEN da Udalaren eta LauLagun Beraing S.Lren lankidetza enpresarialerako hitzarmena.**

**9. Fabiana Zudaire musika lokalen araudiaren proiektua onartzea, hala badagokio.**



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 • udala@idiazabal.eus

**IDIAZABALGO UDALA**

FABIANA ZUDAIRE MUSIKA LOKALEN ARAUDIAREN PROIEKTUA

**AYUNTAMIENTO DE IDIAZABAL**

PROYECTO DE REGLAMENTO DEL LOS LOCALES DE MÚSICA FABIANA ZUDAIRE


**A. Araudiaren sarrera orokorra.**

1. Artikulua Araudiaren xedea
2. Artikulua Musika lokalen ezaugarriak

**B. Erabiltzaileak**

3. Artikulua Erabiltzailearen definizioa
4. Artikulua Erabiltzailearen adina
5. Artikulua Erabiltzailearen eskubideak
6. Artikulua Erantzunkizun zibileko asegurua
7. Artikulua Erabiltzailearen betebeharrak

**C. Instalazioetarako erabilera arautegia**

8. Artikulua Instalazioak erreserbatzea
9. Artikulua Erreserba motak
10. Artikulua Ordutegia

**D. Zigortzeko erregimena**

11. Artikulua Betebeharrak ez betetzea
12. Artikulua Arau-hauste oso larria
13. Artikulua Arau-hauste larria
14. Artikulua Arau-hauste arina
15. Artikulua Zuhurtziazko neurriak
16. Artikulua Zigorrak
17. Artikulua Zigor mailaketa

**A. Introducción general del reglamento.**

Artículo 1. Objeto de reglamento

Artículo 2. Características de los locales de música

**B. Personas usuarias**

Artículo 3. Definición de personas usuarias

Artículo 4. Edad de la persona usuaria

Artículo 5. Derechos de la persona usuaria

Artículo 6. Seguro de Responsabilidad Civil

Artículo 7. Obligaciones de la persona usuaria

**C. Normativa de uso a las instalaciones**

Artículo 8. Reservas de instalaciones

Artículo 9. Opciones de reserva

Artículo 10. Horario

**D. Regimen sancionador**

Artículo 11. Inclunplimiento de obligaciones

Artículo 12. Faltas muy graves

Artículo 13. Faltas graves

Artículo 14. Faltas leves

Artículo 15. Medidas cautelares

Artículo 16. Sanciones

Artículo 17. Graduación de sanciones




Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 • udala@idiazabal.eus

18. Artikulua Prozedura zigortzailea

19. Artikulua Kalteak konpontzea

20. Artikulua Erantzuleak

21. Artikulua Adin txikikoek egindako arau-hausteak

22. Artikulua Neurri hezitzaileak

23. Artikulua Hitzartutako amaiera

24. Artikulua Txartelen konfiskazio probisionala

Artículo 18. Procedimiento sancionador

Artículo 19. Reparación de daños

Artículo 20. Personas responsables

Artículo 21. Infracciones cometidas por menores de edad

Artículo 22. Medidas educativas

Artículo 23. Terminación convencional

Artículo 24. Incautación provisional de carnés

**IDIAZABALGO UDALA**

FABIANA ZUDAIRE MUSIKA LOKALEN ARAUDIAREN PROIEKTUA

**Araudiaren sarrera orokorra.**

1. Artikulua. Araudiaren xedea

Araudi honen xedea da "Fabiana Zudaire" musika lokalak erabiltzeko baldintzak arautzea.

2. Artikulua. Musika lokalen ezaugarriak

Hiru entsegu gela daude erabilgarri (banaka entseatzeko C gela eta taldeentzako A eta B gelak).

Gela hauek Udalaren jabetzako materialez hornituta daude.

Ekipoek okupatuko duten espazioak mugatuko du lokal bera erabiliko duten talde kopurua.

**Erabiltzaileak**

3. Artikulua. Erabiltzailearen definizioa

Erabiltzailea da musika instrumentu bat jotzeko edo abesteko, zein musika talde batekin entseguak egiteko lokala behar duen pertsona oro.

1. **Norbanakoak:** Instrumentua jo edota abesteko lokala behar duen Idiazabalgo herritarra.

**AYUNTAMIENTO DE IDIAZABAL**

PROYECTO DE REGLAMENTO DEL LOS LOCALES DE MÚSICA FABIANA ZUDAIRE

**Introducción general del reglamento.**

Artículo 1. Objeto de reglamento

El presente reglamento tiene por objeto regular el uso de los locales de música "Fabiana Zudaire"

Artículo 2. Características de los locales de música

Hay tres salas de ensayo disponibles (el aula C para ensayo individual y las aulas A Y B para grupos)

Estas aulas están dotadas de material propiedad del Ayuntamiento.

El espacio que ocupan los equipos limitará el número de grupos que utilizarán el mismo local.

**Personas usuarias**

Artículo 3. Definición de personas usuarias

Se entiende por persona usuaria toda persona que necesite un local para tocar un instrumento musical o cantar y/o realizar ensayos con un grupo de música.

1. **Personas individuales:** Toda persona de Idiazabal que necesite un local para tocar el instrumento y/o cantar



Plaza Nagusia 3 • 20213 IDIAZABAL • IFZ/NIF: P 2004800 E • Telefono: 943 18 71 00 • Fax: 943 18 71 43 • udala@idiazabal.eus

**2. Taldeak:** Instrumentuak jo edo abesteko lokala behar duen taldea, non kideetako bat gutxienez Idiazabalgoa den. Taldekide guztiek Udalean izena eman beharko dute.

4. Artikulua. Erabiltzailearen adina

12 urtetik aurrerako erabiltzaileak.

5. Artikulua. Erabiltzailearen eskubideak

1.1. Erabiltzeko eskubidea. Erabiltzaile guztiek dute Udalak eskainitako instalazioak erabiltzeko eskubidea, araudi partikular bakoitzaren arabera, baldin eta instalazio horiek eskuragarri badaude eta, era berean, pertsona horiek ez badute inolako zigorrik, instalazioetan sartzeko edo horiek erabiltzeko.

1.2. Entsegu gelara sartzen diren erabiltzaile guztiek txartela izango beharko dute.

1.3. Talde edo norbanakoek euren ekipoak entsegu lokalean bertan eduki ahal izango dituzte; horretarako, hilean gutxienez 8 ordu erabili beharko dute, banakako edo taldekako erabilera orduak kontatuko direlarik.

1.4. Erreklamatzeko eta iruzkinak egiteko eskubidea. Erabiltze guztiek dute edozein zalantza, iradokizun edo erreklamazio aurkezteko eskubidea.

6. Artikulua. Erantzunkizun zibileko asegurua

Idiazabalgo Udalak erantzukizun zibileko asegurua izango du, non administrazioaren kultur instalazioetako ondare erantzukizuneko balizko gertaerak babestuko dituen.

7. Artikulua. Erabiltzailearen betebeharrak

a. Arauak betetzea. Kultur instalazio eta zerbitzuak erabiltzen dituzten erabiltzaile guztiek errespetatu eta beteko dituzte araudi honetako arauak, bai eta ezarri beharreko gainerako araudiak ere. Erabiltzaileek araudia ez ezagutzeak ez ditu salbuesten arauak bete behar izatetik. Hala, debekatuta dago:

- Instalazioetan erretzea

